



SAN ROKE 2023 KARTEL LEHIAKETA

2023ko San Roke jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Debako Udalak.

1.- Gaia eta kartelaren testua:

“San Roke jaiak 2023, abuztuak 14-18 DEBA”, Debako logotipoa(*) konposizioan integratuta egongo da.

2.- Parte-hartzea:

Nahi duen orok parte har dezake. Obrak, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak izango dira derrigor, eta jendaurrean aurkezteko modukoak. Plagio edo kopia susmorik sortuko balitz, epaile taldeak erabakiko luke proposamena onartu ala ez eta erabakia apelaezina izango da.

3.- Tamaina:

Original guztien neurri bertikala 50 x 70 zentimetrokoa izango da.

4.- Kolorea eta teknika:

Aukerakoa. Ordenagailuz eginez gero, inprimatutako bertsioaz gain, kartelaren euskarri informatikoa ere aurkeztu beharko da. Kasu horretan goi-mailako erresoluzioko artxiboa izango da eta, gutxienez, 300ppp. izango ditu.

5.- Aurkezteko eguna:

Ekainak 16, 14:00ak arte.

6.- Aurkezteko lekua:

Harrera bulegoa, 10:00-14:00 astelehenetik ostiralera.

KOMUNIKAZIOA

Harremanetarako: Saioa Rodriguez Andueza
komunikazioa@deba.eus / +34 671 351 927



7.- Identifikazioa:

Kartela euskarri gogorrean eta behar bezala estalita aurkeztuko da. Kanpoaldean egilearen lema idatziko da. Lan bakoitzarekin batera kartazal itxi bat entregatuko da. Kartazalaren barruan egilearen izen-deiturak, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira eta kanpoaldean kartelaren lema.

8.- Informazioa:

943192840 / artxiboa@deba.eus / Debako udala, Portu kalea 1 Deba.

9.- Saria:

500 euroko sari bakarra. Sariari dagokion erretentzioa egingo zaio.

10.-Epaimahaia:

Kultura Departamentuak izendatuko du, emakumeen eta gizonen ordezkariak parekatua izango dela bermatuta.

11.- Erabilitako irudiek generoen arteko oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-orientazioari dagokionez diskriminaziorik egin gabe.

12.- Erakusketa:

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztien artean epaile taldeak aukeratutako sail bat jendarean erakutsiko da, Udaleko osoko bilkuran.

13.- Aukeratutako lan horien artean aterako da irabazlea, herritarren botoek erabakita. Botoak osoko bilkuran bertan emango dira. Aurretik iragarriko dira erakusketaren datak.



14.- Lanak noiz jaso:

Saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira 2023ko abuztuaren 1etik 5era. Epe horretan jaso ez direnekin udalak ez du inolako ardurarik izango.

15.- Saritutako kartela eta haren era guztietako erreprodukzio eskubideak Debako Udalaren jabetzapean geratuko dira eta egoki deritzon publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu. Kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, ez eta jandantik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Gainera, saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Debako Udalari emandakotzat joko dira, inolako kontraprestaziorik gabe.

16.- Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

17.- Lehiaketan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea dakar.

(*)